**2015ERA LUZATUTAKO 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 10 EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKA

**Programa:** 15 TOKI ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA JURIDIKOA

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO 2014 PRORROGADO PARA 2015**

**Departamento:** 10 DESARROLLO ECONÓMICO Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 15 ASISTENCIA Y ASESORAMIENTO JURÍDICO A ENTIDADES LOCALES

## SAILAREN MEMORIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Programa honen helburua toki erakundeak epaiketetan aholkatzea eta defendatzea da.

Egindako jardueren artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Aldundiak, ekitaldian zehar, hainbat toki erakunderen epaitegietako abokatu defentsa eta ordezkaritza bere gain hartu izanaren gastuak.
- Arabako erakundeei aholkularitza juridikoa eskaini zaie, kontuan izanik kudeaketa administratiboak garrantzi handia daukala Arabako landa aldeetako biztanleen ingurune hurbilenetan diharduen toki administrazioaren funtzionamendua ahalik eta onena izan dadin.
- Arabako Kontzejuen Elkarteari laguntza eman zaio, langileek eta funtzionamenduak sortzen dituzten zenbait gasturi aurre egin ahal izateko.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Kontuan izanik zehazten den helburua, hau da, epaiketetan Arabako toki erakundeen aholkularitza eta defentsa ahalik gehien garatzea, helburuaren betetze maila aztertzeko honako hauek hartu behar dira aintzat: batetik, ekintzak aurreikusitako ekintzekin bat etorri diren; bestetik, toki erakundeek adierazitako beharrei kasu egin zaien eta programan ezarritako helburuekin lotu diren. Bada, betetze maila altua izan da.

### I. MEMORIA

El objetivo que persigue el programa queda establecido como *el asesoramiento y defensa en juicio de las Entidades Locales.*

Entre las acciones desarrolladas cabe destacar las siguientes:

- Los gastos derivados de la defensa letrada en juicio y de representación de diversas entidades locales, de los que se hizo cargo la Diputación durante el ejercicio.
- Asesoramiento jurídico a las distintas entidades alavesas habida cuenta de la importancia de la gestión administrativa en el logro del óptimo funcionamiento de la administración local que se desenvuelve en los ámbitos más próximos al habitante del medio rural alavés.
- Concesión de ayuda a la Asociación de Concejos de Álava para hacer frente a diversos gastos de personal e inherentes a su funcionamiento.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Teniendo en cuenta que el objetivo que se define es el asesoramiento y defensa en juicio de las entidades locales alavesas, el cumplimiento del objetivo viene dado no sólo por la adecuación de las acciones llevadas a cabo con las previstas, sino también en tanto en cuanto fueron atendidas las necesidades manifestadas por los entes locales, y relacionadas con los objetivos establecidos en el programa. En ambos sentidos, ha de afirmarse que el grado de cumplimiento puede considerarse elevado.